

# APAREJADORE OHIAREKIN IZANDAKO AUZIA

## AZALPENEA ETA DATU EKONOMIKOAK

### GERTAKARIAK

- 1990-10-30: Autonomo gisa kontratatu zen, zerbitzu kontratu batekin, Udalean aparejadore lanak egiteko.
- 2008-02-07: Kontratua etengo zela jakinarazi zion Udalak.
- 2008-03-13: Aparejadoreak kaleratzea nulotzat hartzeko eskaera egin zuen.
- 2008-04-17: Udalak ukatu egin zuen eskaera.
- 2008-11-06: Sententziak jasotakoaren arabera kaleratzea bidegabeta izan zen.
  - Bi aukera zituen Udalak: 56.670,52€ ordaintzea edo langile gisa hartzea.
- Udalak sententzia errekurritu zuen.
- 2009-04-21: TSJPV-k ez zion arrazoirik eman Udalarari.
- 2009-06-08: Aparejadorea langile gisa kontratatu zuen Udalak.
- Aparejadoreak berriz hartze hori errekurritu zuen.
- Madrilgo Auzitegi Gorenak aparejadorea berriz langile gisa kontratatzea legezkoa zela aitortu zion Udalarari.
- Udalak alta eman zion 1990eko azaroaren 30etik 2009ko maiatzaren 6ra.
  - 1990eko azaroaren 30etik 2005eko uztailaren 19ra arteko epea kotizatu gabe eta preskribatuta gelditzen da.
- Ezgaitasun espedientea martxan jarri zuen aparejadoreak.
- 2012-06-01: Ukatu egin zioten *“por no reunir el periodo mínimo de cotización exigido”*
- Aparejadoreak Gizarte Segurantzza eta Udala demandatu zituen.
- 2013-03-08: Sententzia atera zen eta horrek:
  - Udala **hileru 1.616,84 € ordaintzera** zigortzen du.
- 2014-01-21: TSJPV-ak Udalaren erregu helegitea ukatu zuen.
- 2014-04-22: Gizarte Segurantzak kopuru totala kalkulatzen du. 340.485,96 € + interes eta kostak, **guztira 439.342,45 €.**
- 2014-11-06: Zorra bost urtean ordaintzea onartu zuen Gizarte Segurantzak.
- 2015-07-16: Kalte-ordainaren lehen kuota ordaindu zuen Udalak.
- 2015-11-27: Elbarritasun handia onartu zioten aparejadoreari eta horrela,
  - Udala, **hileru, 1.216,17 € gehiago ordaintzera** zigortu zuen.
- Udalak sententziaren argipena eskatu zuen eta ondoren, errekurritu egin zuen.
- 2015-12-15: Argipena: 1.216,17 €-koa da hileko kopurua.
- 2016-07-18: Tarteratutako errekursoaren kontrako epaia atera zen.
- 2017-05-11: Auzitegi Gorenaren autoa, errekursoaren kontra.
- 2017-06-30: Ezgaitasun handiagatik eskaera guztira 277.008,01 €-koa izan zen.
- 2018-01-18: Exekuzioa. Bost urtez, 62.743,97 €.

**GUZTIRA 753.062,26 €-KOA IZAN DA KALTE-ORDAINA**

## AURREKO ALDIZKARIKO “AURRERA BEGIRAKOAK” ATALEKO KONPROMISOEN BETETZE MAILA

Hartutako konpromisoa	Beteta?
Museoari dagokionez, bisitak optimizatuko dira	Bidean
Museoa egokitzeko plangintza estrategikoa garatuko da	BAI
Baserrri bideak egingo dira (Iturbe Etxeberri), eta Asentziokoa, San Antoniokoa zein Txulokuakoa konponduko dira	BAI
Konpostaren inguruko lanketa berezia egingo da	BAI
Emakumeak esku pilotan aritzea sustatuko da	BAI
Herritarren parte hartzerako bide berriak zabalduko dira	BAI
Udal eraikinen erabilera pribatuaren inguruko hausnarketa egingo da	Bidean



### ELGETAKO UDALA

Helbidea  
Mendizaleen plaza, 1

Telefonia  
943 76 80 22

E-posta helbidea  
udala@elgeta.eus

Web orria  
www.elgeta.eus



Elgetako udala

danonartian@elgeta.eus



Elgetako Udala



@elgetakoudala



Hirix Elgeta

## UDAL ALDIZKARIA

# ELGETA



Elgetako udala



## EGINDAKO AIPAGARRIENAK



### EUSKARA

- Udaleko Euskararen Kudeaketa Planean hartutako konpromisoak betetzen goaz.
- *Hitano* ikastaroa eskaini da, eta herriko 12 lagunek parte hartu dute.
- *“Elgetan Berbetan”* berbalagun saioek martxan dira eta ekintza berriak sortu edota proposatu dira beronen inguruan; *“Hitzez pitz”*, *“Hikalagun”*...
- Euskararen eguna hotz esnatu bazen ere, epel erantzun genion gimnasioan batu ginenok; tarteak, umeak, gurasoak, eta Urflax pailazoa! Sentitu, pentsatu eta ekinez, obatu euskarari!
- Euskara ikasteko baliabideen gida osatu dugu, zeinak herritarrek euskara ikasteko dituzten bide ezberdinak azaltzen dituen.
- Hainbat kanpaina aurrera atera dira (aisa online ikastaroa, Kike Amonarrizek prestatutako *“Biharko euskara, gaur”* mankomunitatearekin batera, jaioberrien eskuliburuak...).



# EGINDAKO AIPAGARRIENAK



## INGURUMENA

- Konpostaren inguruko jardunaldiak egin dira. Konpostaren inguruko hitzaldiak eskaini dira, erakusketa zein guneetara bisitak antolatuta dira eta triptikoa kaleratu da.
- Konpostari jarraipena egiteko eta guneetan hobekuntzak egiteko Luar enpresaren laguntza jasotzea erabaki da.
- Konpostagailu berriak jarri dira herrian, gune bakoitzaren beharrak kontuan hartuz.
- Hondakinen bilketari dagokionez, aurreko aldizkarian adierazi genuen moduan, ondo gabiltza, baina badugu zer hobetua! Azkeneko bilketa datuak %80tik behera kokatu dira (%79,43, nahiz eta urteko batz bestekoa %80,65ean kokatzen den) eta guneetan narraskeria galantak ikusten jarraitzen dugu. Zer pena gutxi batzuen erruz irudi horiek etxe parean izatea!
- Sesto errekan laginak hartu eta berauek ikertu ostean emaitzak jaso dira. Lehen laginak 24.000 coliforme eta 24.000 e coli zituen. Berauek bakterio fekalak izanik, atera kontuak zer isurtzen den Elgetatik Sesto errekarat!



## BASERRITARRAK

- Baserritarren batzordetik hainbat auzolan deialdi kaleratu dira, besteak beste:
  - Urriaren 12an, Egoarbitzako herri sailak garbitu zituzten 8 herritarrek.
  - Azaroaren 11n, Azula-Beizuko bidearen aretak garbitu zituzten 6 herritarrek.
- Azoka nagusia ospatu zen uztailko lehen igandean, giro paregabea. 60 postu, 20 idi pare, ganadua, eta garrantzitsuena; herritar zein kanpotarrak, gustora gure inguruetako baserrietan dituzten produktuak, animaliak zein artisautza lanak ikusi eta erosten!
- Irailaren 23an, herriko baserritarren azoka egin zen, eta aurtengoan 19 postu batu ziren plaza bueltan. Baserritarren produktuak, artisauen lanak, marokoar jakiak, garagardoa... ikusi erosi edota probatzeko aukera polita izan genuen!
- Aurten, hainbat baserri bide konpondu dira; Asentzioko bideko zuloak estali dira (3.500 €) eta Azula-Beizu baserrietarako bidean pinuak ateratzen egindako kalteak konpondu dira (6.800 €). Horretaz gain, asfaltatu gabe zegoen Iturbe Etxebarriko bidea egin da (12.300 €).



## KULTURA

- Azaro hiru domekatan "X. pintxo domekak" izan dira herrian. Aurten, hainbat berrikuntzekin gainera; lehiaketa bi egunetan ospatu da, ekintza berriak sartu dira egitarauan (sormening tailerra kasu)...
- Espaloia Kafe Antzokian hainbat hobekuntza egin dira eta hutsik gelditu zen esleipena kaleratu zen. Horren ostean hainbat kontaktu izan ditu Udalak.
- Espaloia Kafe Antzokian burutu daitezkeen kultur proiektuak diru-laguntzatara aurkeztu ditugu.
- Udalak lokalak erabiltzeko irizpideen zerrenda osatuz gabiltza kultura batzordean.
- Hitzaldiak eta tailerrak antolatuta dira, eta bide horretan sakontzea da gure asmoa.

## HEZKUNTZA

- Gazteleku, ludoteka eta zaintza zerbitzuak mantentzeaz gain, "Gaztematika" programaren barruan txertatu gara. Zerbitzuaren kalitatea hobetzeaz gain, diru-laguntzak 2.300 €-tik 8.300 €-ra igotzea lortu da.
- Herri Eskolako pasilloak margotu dira.

# EGINDAKO AIPAGARRIENAK



## PARTE HARTZEA ETA AUZOLANA

- "Ateak irekiz" programaren barruan pauso handiak ematen jarraitu da:
  - "Bibliotxiki" ume txikiarentzako liburutegi txokoa sortu da auzolan bidez.
  - KZ Gunea lehengo EPA gelan kokatu da.
  - Lehengo EPA gela hustu, atondu eta auzolanean margotu da.
  - Guraso Elkartearen beharrak aseko lituzkeen txokoa hustu eta garbitu ostean, euren esku gelditu da behin behinekoz.
  - Udalak zituen igerileku zaharrak emateko deialdia egin da.
- "Hirix" aplikazioa sortu da herritarren partaidetza sustatzeko; informazioa, kexak, iradokizunak, inkestak, zorion mezuak, txat-ak, etab. barnebiltzen ditu besteak beste.

## ONGIZATEA

- Azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna izanik, hainbat ekintza egin ziren herrian: "Ez ezetz da!" lelopean argazki erakusketa, papereko loreak, muralak eta kontzentrazio isila, besteak beste.
- Martxan da oroimena lantzeko tailerra, bigarren aldiz.
- Eguneko zentroan hobekuntzak egin dira; labea jarri, margoketa lanak...
- Giro paregabea ospatu dugu Santo Tomas eguna Mizpirualdeko egoiliarrek.
- Libre zegoen udal eraikin bat behar larri bati erantzuteko erabili da.
- % 38,57 igo da Bideberrira egiten den ekarpena, bereziki Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzuak indartzeko.

## TURISMOA Memoria Historikoa

- Gudan faxismoak eraildako elgetarrei omenaldia egin zaie.
- Intxortako frontea ezarri zeneko 81. urtemuga izanik, urriaren egitarau berezia osatu zen; urriaren 4an Frankismoaren krimenen aurkako kereila aurkeztu zen Bergarako epaitegian, Leyre Arrieta historialariaren *Lehen Eusko Jaurkitza* hitzaldia entzuteko aukera izan genuen, Pablo Beldarrainen *Historia Critica de la Guerra en Euskadi* liburuaen bigarren edizioaren aurkezpena izan genuen, holokaustoko biktimia elgetarra den Pascual Askarribarren erlojua Euskal Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroan kokatu zen, bisita gidatu antzeztua egin zen...
- Hauexek dira Kereilaren nondik norakoak:
  - Uztailko osoko bilkuran Frankismoaren aurkako auzian kereilari gisa aurkeztea erabakitzen da.
  - 2017-11-14: lehenengo aldiz Euskal Herrian Francoren diktadurapean jasandako krimenak ofizios ikertzeko aurretiko eginbideak edo diligentsiak hasi zituen epaile batek, eta lekukoak deklaratzera deitu zituen.
  - 2017-12-22: beste epaile batek kereila artxibatu zuen eta prozesua bertan behera gelditu zen.
  - 2018-01-02: udalak errekurtsioa jarri zuen.

**Justizia, egia eta erreparazioa!**

- Herritar batek luzatutako iradokizuna aintzat hartuz herri sarerretako panelak berritu dira.
- Elgetarekiko Uberaren eta Angiozarren 1927ko desanexioaren inguruko hitzaldia egin da.



# EGINDAKO AIPAGARRIENAK



## HIRIGINTZA

- Hilerriko hormaren konponketa lanak hasi dira. Lehenengo urratsak horma arriskutsu horretan segurtasun lanak egitea eta oinezkoie bidea moztea izan dira. 52.000 €-ko aurrekontua du proiektu honek.
- Nagusientzako diseinatutako aktibitate parkea sortu da, zahartzaro aktiboa eta bizitza ohitura osasungarriak bultzatzeko helburuarekin.
- EITen (ITE) inguruko hitzaldia egin da, eraikinetan egin beharreko ikuskapenaren nondik norakoak azaltzeko.
- Herriko hainbat enprekin bilerak egin dira.
- San Roke osteko bidegorritik Larrabiltzearra igarotzeko aldapa egokitu da.

## OGASUNA ETA PERTSONALA

- Tasa eta zergei dagokienez, hezkuntza zerbitzuko prezioak merketu ditugu urte osoko bonoa hartuz gero. Ludotekako urteko bonoa 280 €-koa da, hilabeteko kuota 40 €-koa eta bost eguneko bonoa 20 €-koa. Gazteleku honako bonoak daude: 180 €-koa, 25 €-koa eta 10 €-koa.
- Udalak dituen zorrak eta kalte-ordainak aztertzen, epekatzen eta ordaintzen jarraitzen dugu. 2019tik aurrera egoera hobetuko da.
- Herentziako zor eta kalte-ordain hauek ordaintzeko, bozka eskubidea duen HERRITAR BAKOITZAK 2.069,14€ ordaindu beharko ditu.

ELGETAKO UDALAREN ZORRA EPEKATUTA							
KONTZEPTUA	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Bankuak	129.593,00	76.913,75	26.000,00	26.000,00	26.000,00	26.000,00	18.000,00
Apareadorearen auzia I	87.868,49	87.868,49	87.868,49	87.868,49	87.868,49		
Apareadorearen auzia II				62.743,97	62.744,97	62.745,97	62.746,97
Beste kalte-ordain batzuk		78.000,00	78.000,00	78.000,00	78.000,00	78.000,00	78.000,00
Domingo Iturbe Pat.	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>223.461,49</b>	<b>248.782,24</b>	<b>197.868,49</b>	<b>260.612,46</b>	<b>260.613,46</b>	<b>172.745,97</b>	<b>164.746,97</b>
KONTZEPTUA	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028
Bankuak	18.000,00	18.000,00	18.000,00	18.000,00	100.000,00	100.000,00	100.000,00
Apareadorearen auzia II	62.743,97						
Beste kalte-ordain batzuk	78.000,00	78.000,00	78.000,00	78.000,00			
Domingo Iturbe Pat.	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>164.743,97</b>	<b>102.000,00</b>	<b>102.000,00</b>	<b>102.000,00</b>	<b>106.000,00</b>	<b>106.000,00</b>	<b>106.000,00</b>
KONTZEPTUA	2029	2030	2031	2032	2033	2034	2035
Bankuak	63.341,00						
Domingo Iturbe Pat.	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00	6.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>69.341,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>6.000,00</b>
KONTZEPTUA	2036						
Bankuak							
Domingo Iturbe Pat.	37.000,00						
<b>GUZTIRA</b>	<b>37.000,00</b>						

Guztira zorra 2015etik:  
**2.354.569,00 €**

## KIROLA

- Umeen pilota eskolak aurrera darrai.
- Kirol ekipamenduan hobekuntzak egin dira; takilak, horma-barrak...
- Emakumeen esku pilota txapelketa aurrera atera da.
- Herri kirola bultzatu da, aizkora zein harri-jasotze txapelketak herrira ekarriz.
- 26.000 €-ko inbertsioa egingo da kiroldegiko aldagelak berritzen, eta hori gauzatzeko 13.000 €-ko laguntza lortu da.

## JAIK

- Jaietako kartel lehiaketa egin da eta irabazlea bozketa bidez aukeratu da.
- Jaietako kontzertuak erabakitzeko bilera irekia egin zen.
- Hainbat berrikuntza proposatu dira aurten eta harrera beroa jaso dute berauek, tartean, talde jolasak, gaueko nagusientzako jolas parkea edota karaoke lehiaketa.

